



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Web Posta erabiltzeko eskuliburu laburra

0.5 bertsioa. Dokumentu honen azken bertsioa hemendik deskargatu:
https://www.ehu.es/correow/manual_eu.pdf

Web Posta erabiltzeko eskuliburu laburra

Dokumentu honen azken bertsioa hemendik deskargatu:
https://www.ehu.es/correow/manual_eu.pdf



Dokumentu honen helburua web posta interfaze berria erabiltzeko eskuliburu labur bat izatea da.

Zerbitzu hau erabiltzeko internet konexioa eta web nabigatzaile bat behar duzu. Konexioa duen munduko edozein lekutik sartu ahal izango gara, VPN erabili barik:

1. Helbide honetan sartu: <https://www.ehu.es/correow>
2. Erabiltzaile izena idatzi (LDAP erabiltzailea)
3. **Bidali** botoian klik egin

Sistemak automatikoki erabiltzaileari dagokion posta zerbitzarira bideratuko du konexioa:

- AZP eta IIP batzuk MS Exchange zerbitzarietan daukate beraien posta. Kasu hauetan sistemak Microsoft Web Outlook Access web orrira egingo du konexioa. Gidaliburu honek ez du zerbitzu horren azalpena betetzen.
- Unibertsitateko ikasleak eta IIP gehienak unibertsitateko IMAP zerbitzarietan dute beraien posta (MAILIN eta IKASLE). Hauen kasuan sistemak Horde plataforma librean oinarritutako web aplikazio berrira bideratuko du konexioa.

Azken erabiltzaile talde honetakoa baldin bagara formulario batek erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatuko digu. Hizkuntza aldatzeko aukera ere emango digu. Aurretik automatikoki aukeratutako hizkuntza, erabiltzaileak nabigatzailean dituen hobespeneen arabera egin da.

1. Erabiltzaileari dagokion pasahitza idatzi
2. **Hasi saioa** botoian klik egin

Sartu eta berehala gure sarrera ontzia ikusiko dugu.

| # | Data | Nork | Gaia [Haria] | Tamaina |
|----|------------|----------------------------|--|---------|
| 41 | 2008-02-18 | Alvaro Vilanova, Guillermo | RE: MAC helbideak | 4 KB |
| 42 | 2008-02-18 | Alvaro Vilanova, Guillermo | MAC helbideak | 15 KB |
| 43 | 2008-02-19 | carminas.cuadros@ehu.es | Proiektu | 1 KB |
| 44 | 2008-02-20 | jaen.garcia@ehu.es | PRUEBA | 3 KB |
| 45 | 2008-02-25 | CIOP Bihara | MAILIN posta zerbitzu pasahitzaAutenticacion servicio de correo MAILIN | 4 KB |
| 46 | 2008-02-26 | Rafael Fernandez Aun | PHP LDAP Admin | 2 KB |
| 47 | 2008-02-27 | Jorge Revuelta | Re: acceso para lista de mailman en produccion | 3 KB |
| 48 | 2008-02-28 | Jorge Revuelta | Re: acceso para lista de mailman en produccion | 3 KB |
| 49 | 2008-02-28 | Jorge Revuelta | Re: acceso para lista de mailman en produccion | 3 KB |
| 50 | 2008-02-28 | akana.zelba@ehu.es | RE: instalador | 2 KB |
| 51 | 2008-03-04 | Enke G. Argandoña | Re: p | 2 KB |
| 52 | 2008-03-04 | Abel Uribe, Ahariz | salbtoa???? | 2 KB |
| 53 | 2008-03-07 | CIOP Bihara | MAILIN posta zerbitzu pasahitzaAutenticacion servicio de correo MAILIN | 4 KB |
| 54 | 2008-03-10 | CIOP Bihara | MAILIN posta zerbitzu pasahitzaAutenticacion servicio de correo MAILIN | 3 KB |



Mezuak Irakurri

Sarrera ontziko mezuak irakurtzeko ezkerreko zutabeen *Posta* menuan dagoen **Sarrerako ontzia** aukeratuko dugu.



dugu.

Lerro bakoitzeko posta mezu bat ikusiko dugu. Mezu berriak letra beltzez egongo dira. Mezu baten gainean klik eginda edukia ikusiko

Mezuak idatzi

Mezu bat idazteko ezkerreko zutabeen *Posta* menuan dagoen **Mezu berria** aukeratuko dugu.



eta bukatzeko *Testua* eremuan mezuaren edukia.

Leiho berri bat irekiko da posta formulario batekin. *Nori* eremuan hartzailearen posta helbidea idatziko dugu. *Gaia* eremuan mezuaren gaia

Testua eremuaren gainean erabilgarriak diren ikono batzuk ikusiko ditugu. **Helbide-liburua** ikonoan klik eginda gure helbide liburua irekiko dugu eta zuzenean mezuaren hartzaileak erantsi ahal izango ditugu.

Formularioaren azpiko aldean mezuari fitxategiak erantsi ahal dizkiogu. Fitxategia aukeratu eta **Eguneratu** botoian klik eginda sistemak fitxategia jasoko du eta fitxategi gehiago eransteko aukera emango digu.

Mezua idazten bukatzen dugunean **Bidali mezua** botoian klik egin mezua bidaltzeko.

Helbide liburua

Ezkerreko menuan, Antolamendua -> Helbide-liburua -> **Addressbook** ikonoan klik eginda gure helbide liburu pertsonala ikusiko dugu.



Goiko menuan gure kontaktuak eta zerrendak kudeatzeko aukera desberdinak ditugu.



Non bilatu nahi dugun aukeratu, bilatzen ari garen pertsonaren izana idatzi eta **Bilatu** botoian klik eginez gero sistemak topatutako helbideak ikusiko ditugu.

Antolamendua -> Helbide-liburua -> **Bilatu** ikonoan klik eginda helbideak bilatzeko aukera dugu, bai gure liburu pertsonalean bai EHUko helbide liburu korporatiboan.

Fitxategi kudeatzailea

Unibertsitateko zerbitzarietan (gorde/bildu) kokatuta dauzkagun karpetak eta fitxategiak ere kontsultatu ahal ditugu aplikazio honen bidez.



diren aukera desberdinak fitxategi hauek kudeatzeko aukera emango digute.

Ezkerreko menuan **Fitxategi-kudeatzailea** ikonoaren gainean klik egin hona sartzeko. Gure *gune* pertsonalean kokatutako karpetak eta fitxategiak ikusiko ditugu. Goiko menuan agertzen




Aukera pertsonalak



Aukera pertsonalak konfiguratzeko **Aukerak** ikonoan klik egin eta pertsonalizatu nahi dugun arloa aukeratu.

Laguntza



Uneoro goiko menuan arlo baten **Laguntza** orokorra eskuratzeko aukera dugu. Bestalde, aplikazioaren hainbat lekutan flotagailu itxura duen ikonoa  ikusiko dugu. Ikono honek ekintza zehatz baten inguruko laguntza eskainiko digu.

Laguntza pertsonalizatua behar izanez gero, goiko menuan **Arazoa!** ikonoan klik eginez gero zerbitzu honen administrariari zuzenean mezu bat idatzi ahal diogu gure arazoren berri zehaztasunez azaltzen.

Software

Aplikazio hau [Horde Groupware Webmail Edition](#) izeneko programan oinarrituta dago [Horde Proiektua](#)ren barruan.